

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### MEZKIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko aldiari ordaintzeko moduan ipintzea 2020ko neguko ordainagiriak**

Prestatu delarik Mezkiako etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2020ko neguko zergadunen errolda, jendaurrean jarri da errolda hori hamabost egun baliorduneko epeaz, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeke eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteke.

Interesa dutenek Mezkiako (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedienteak.

Ediktu honek, orobat, bete egiten du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zereginak, Zergen Foru Arau Orokorrak 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeke errekurtsioa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteke epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsioa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hasita hilabete igaro baino lehen.

Ordaintzeko borondatezko epea 2020ko irailaren 14an hasi eta irailaren 14an bukatuko da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko irailaren 14an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, Vitalneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Mezkiako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrera egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekararekin, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Mezkiak, 2020ko uztailaren 7a

*Lehendakaria*

*JUAN CARLOS RUIZ DE MENDOZA*